

ARROTOINEZKO BILZARRE BAT



Gatu zaar bat bazen
 ene sor etchean,
 alako bat on laite
 etche bakotchean:
 egun argiz iizin.
 berdin gau beltzean
 sagu ta arrotonez
 zagoen asean.

Saguak jan zituen
 guziak leenik;
 arrotainak ez oro
 zailegi izanik:
 gutienik ustean,
 ichilkan jinik,
 atchematzen zituen
 amarruz Miñiñik.

Otsaileko gauetan,
 gatu zaar ura
 auzoko etchetarat
 baitzoan ardura,
 arrotainen artean
 izan zan bilkura,
 itzartzeko zer egin,
 zertara mentura.

Arrotain Presidentak
 au zioten erran:
 «gatuak geiago
 »ez gaitzan atzeman,
 »kroskoila bat lepotik
 »bear zaio eman,
 »jiten bada soinutik
 »dezagun atzeman.

»Lan orren egitera
 »nor zaio juan nai?»
 Batek au erreputa:
 «Ez segurikan ni».
 Bertze batek: «Eri naiz
 ni senda banadi!»
 Bertze bat zen umedun,
 bertze bat ernari.

Berreun bat baitziren,
 bat ez zen atera.
 Gatuari lepotik
 kroskoil ezartzera.
*Ez da aski zer egin
 asmatzea bera:
 neke da maiz eltzea
 batetik bertzera.*

ZALDUBY.

Baionan, Erearoaren 3-an 1901-ean.

